

EHUk HABEren liburutegiko edukiak erabili ahal izango ditu

Erredakzioa. Donostia.

HABEk Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) esku jarri du bere liburutegia. Eusko Jaurilaritzako Kultura sailburu Miren Azkaratek eta EHUko errektore Juan Ignacio Perezek sinatu zuten atzo, Donostian, horretarako akordioa. Azkaratek nabarmendu du eleaniztasunaren alorrean dagoen liburutegirik osoenetakoa dela HABErena. Liburutegia hiru sailetan banatua dago. Lehenbizikoan eleaniztasunari lotutako dokumentuak biltzen dira. Hizkuntzak ikasi eta irakasteko materialei buruzkoa da bigarren saila.

Azkenengoan, berriz, euskarazko ekoizpen bibliografikoa jasotzen da. 35.000 liburukitan, 600 aldizkaritan eta hainbat eta hainbat CD eta DVDtan biltzen dira aipatu edukiak.